

GIZA-ARLOAK

*Ezetik baietzera.
Askatasunean nengon
goi argian soillik.
Bizia itzala da
jaioberri girotan
misterioz goitik.*

*Sei maietz joan ziran.
Sei urteko larrosak
zelaia lurrunduz;
eguzkia ta lurra
batera maite nitun,
mutilla koskonduz.*

*Aita ta ama, pozik,
bizia lortu dabe
ez jakin garbian;
lurra ikaratu zen
aurtxoa ikusirik
negarreen artian.*

*Jolastu adi mutil,
sei urteko gatzetan
txirulirulitan;
poza sentitzen soñak
odol zaiñetan zear
ura irakitan.*

*Ain txikia zan, ain ez...
Ez zan bizigarria
azur ta mamñez;
gaisoa, nora ator,
otsoz josita jagok
lur dana bekaitzez.*

*Gabaz, amets egin dut
eskola lagunekin
jakiturietan;
gizondu egin bear,
pizti maillatik alde
argitasunetan.*

*Txikia baiña zorrotz
amaren ugatzeri
esne zuritan ortz;
amagandik artu dau
sort iturri, maitia,
biziaren lorrotz.*

*Nora oa mutilla,
jakituria artzera
erbestetarpean;
maisuk ez ekian
nere izkuntz garbia;
ai zoritxarpean...!*

*Udabarri goiza da.
Umearen parrea
txit zoragarria;
Amaren biotzetik
aitarengana doa
maitasun loria.*

*Maite ez naun gizona
daukat nere aurrean,
umea zapaltzen;
España'k il nai nindun,
baiña euskaldun nintzan;
mintzairak argitzen.*

*Nik ez nekien zen
umearen su-garra
gurasoengana;
ortzak argia baiño
umeak geio, maite
guraso laztana.*

*Maite neban erria
guraso biotzetan
euskeraz mintzatzen;
baiña zer sentitzen nun...
gurasoen mintzairan
etsaiak gu mintzen...!*